



EBAZPENA, 2024KO MAIATZAREN 20KOA, HEZKUNTZA SAILEKO LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIARENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOKO BIGARREN HEZKUNTZAKO, HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALETAKO, MUSIKA ETA ARTE ESZENIKOETAKO ETA ARTE PLASTIKOETAKO ETA DISEINUKO KATEDRADUN ETA IRAKASLEEN KIDEGOETAKO ETA LANBIDE HEZIKETAKO SEKTORE BEREZIETAKO IRAKASLE ESPEZIALISTEN KIDEGOKO LANGILE FUNTZIONARIOEN AUTONOMIA MAILAKO 2023/2024KO LEKUALDATZE-LEHIAKETAN ONARTUTAKO PARTE-HARTZAILEEN, MEREZIMENDUEN BAREMOAREKIN, ETA KANPOAN UTZITAKO PARTE-HARTZAILEEN BEHIN BETIKO ZERRENDA ARGITARA EMATEN DUENA.

Hezkuntza sailburuaren 2023ko azaroaren 22ko aginduak, Euskal Autonomia Erkidegoko administraziooko unibertsitatekoak ez diren irakasleen kidegoetako langile funtzionarioen autonomia mailako lekualdatze-lehiaketa deitzen duenak, hogeita laugarren oinarrian xedatutakoaren arabera (EHAA 2023ko abenduaren 1a), Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2024ko martxoaren 20ko ebazpenaren bidez eman ziren onartutakoen eta kanpoan utzitakoen behin-behineko zerrenda, eta merezimenduen baremoan lortutako puntuazioak argitara.

Aipatutako 2023ko azaroaren 22ko aginduak, hogeita bostgarren oinarrian xedatutakoaren arabera, behin-behineko zerrenden kontrako erreklamazioak berrikusi dira eta, behar zirenak aintzat hartu ondoren, aldaketak egin dira. Halaber, barematzean atzemandako beste akats batzuk ere zuzendu dira. Akats horien ondorioz, parte-hartzaile batzuek puntuazio handiagoa edo txikiagoa izan dute baremoaren zenbait ataletan, horien artean, baremo akatsa dago 1.1.2 atalean, eta horrek hainbat parte-hartzailearen puntuazioa murriztea ekarri du.

Horiek horrela, behar ziren aldaketak egin ondoren eta Hezkuntza sailburuaren 2023ko azaroaren 22ko aginduak hogeita bostgarren oinarrian xedatutakoaren arabera,

EBATZI DUT:

Lehena.- Euskal Autonomia Erkidegoko administraziooko Bigarren Hezkuntzako, Hizkuntza Eskola Ofizialetako, Musika eta Arte Eszenikoetako eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko Katedradun eta Irakasleen Kidegoetako eta Lanbide Heziketako sektore berezietao irakasle espezialisten kidegoko langile funtzionarioen autonomia mailako lekualdatze-lehiaketan onartutako parte-hartzaileen behin betiko zerrenda argitaratzea, Hezkuntza sailburuaren 2023ko azaroaren 22ko Aginduaren I. eranskinean zehaztutako baremoaren arabera emandako puntuazioa adieraziz.

Bigarrena.- Argitara ematea aipatutako kidegoetako karrerako langile funtzionarioentzako autonomia mailako lekualdatze-lehiaketan onartuak izan ez diren parte-hartzaileen behin betiko zerrenda. Onartu ez izanaren arrazoia adieraziko da.



Hirugarrena.- Ebazpen honen aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango diote Hezkuntza Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, era telematikorik hurrengo interneteko helbidean : <https://hezigunea.euskadi.eus/es> / Eremu pertsonala / Izapideak langileen sailarekin / Lekualdatze Lehiaketa / Behin betiko zerrendaren aurkako gora jotzeko errekurtoak.

BLANCA MARIA GUERRERO OCEJO
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA

Vitoria-Gasteiz, 2024ko maiatzaren 20a